

BIME PRO EKITALDIKO PROGRAMAZIOA OSATUTA, 160 HIZLARI ETA 300 JAIALDI BAINO GEHIAGO IZANGO DIRA, BAITA BIME TECH MERKATUAREN LEHEN EDIZIOA ERE

- BIME PRO Fests ekimenean 300 jaialdi baino gehiago bilduko dira, eta aurreko edizioetako marka gaindituko du

- BIME TECH merkatuaren lehen edizioa izango da, eta sektoreko nazioko eta nazioarteko hornitzaile garrantzitsuenak bilduko dira

- BIME EXPERIENCE ekimenari esker, ikus-entzuleek abantailak eta deskontuak izango dituzte Bilboko museo eta jatetxeetan, jaialdiak irauten duen bitartean

BIME PRO Fests jaialdien eta zuzeneko musikaren sektoreko profesional guztientzako topagunea izango da, eta aurten ere, Estatuko jaialdien sustatzaileen epizentro bihurtuko du Bilbo datorren **urriaren 31n, BIME PROren esparruan.**

Topagunea inoiz baino handiagoa izango da aurten; izan ere, aurreko sei urteetan baino parte-hartzaile gehiago izango ditu eta, aurtengo edizio honetan, iberiar penintsulako –eta planetako beste hainbat tokitako– 300 jaialdi baino gehiago bilduko dira. Beraz, argi dago urtetik urtera gero eta jaialdi eta sustatzaile gehiago direla Estatuan jaialdien sektoreko profesionalentzat egiten den topaketa bakar honetan erabateko konfiantza dutenak.

Oraingoan, gai orokorra **hurrengo hamarkadako jaialdien** izaera izango da, eta hor sartzen dira honako alderdi hauek ere: inbertsio-taldeak musikaren merkatuan sartzea, garapen jasangarriaren helburuak betetzen laguntzea, joera eta negozio-aukera berriak arakatzea, edo kudeaketaren garrantzia eta erronkak jaialdien arloko berrikuntza teknologikoari dagokionez.

8 hitzaldi eta mahai-inguru programatu dira; horietan guztietan, Europako beste eskualde eta herrialde batzuetan eta Latinoamerikan musika-jaialdien izaera hamar urte barru nolakoa izango den dinamizatzeko zer nolako estrategiak erabiltzen dituzten aztertuko dute. Hitzaldi garrantzitsuak antolatu dira sektorean esperientzia handia duten profesionalekin, hala nola **Tom Windish** (Paradigm Agency), **Chechu Martínez** (APM), **Rocío Saiz** (Ground Control), **Fruzsina Szép** (Lollapalooza Berlin) edo **Christof Huber** (Yourope); guztien artean, sormenaren, musikaren eta jaialdien sektorerako kontzientziazioaren balioak eta idealak aztertuko dituzte.

Halaber, jaialdien munduan jasangarritasunaren aldeko apustu handiena egiten ari diren lurraldeetako ordezkariak ere bilduko dira: **Teresa Moore** (A Greener Festival), **Artur Mendes** (Boom Festival), **Patricia Gabeiras** (Gabeiras y Asociados) edo **Fiachra McDonagh** (Rototom); bestalde, **Jordi Herrerueta** (Cruïlla) eta **Amandine Del Pierre** (Weezevent) jaialdien munduarekin lotutako etorkizuneko berrikuntzei buruz

mintzatuko dira. **Guztira 8 hitzaldi, aurkezpenak eta 20 hizlari baino gehiago, orain arteko BIME PRO Fests ekitaldiaren edizio jendetsuenean.**

70 HITZALDI BAINO GEHIAGO ETA HAINBAT HIZLARI BERRI BIME PRO EKIMENAREN PROGRAMA OROKORRA IXTEKO

BIME PROren aurtengo edizioa **urriaren 30ean, 31n eta azaroaren 1ean** izango da, eta programazio osoaren ildo nagusiak aurkeztu dituzte jada. **Guztira, 70 hitzaldi, mahai-inguru, ponentzia, aurkezpen eta tailer eta 160 hizlari baino gehiago** bilduko dira musikaren industria globaleko adar eta alderdi guztiak aintzat hartzen dituen egitarauan.

Landuko diren gaien artean daude, besteak beste, **‘ikus-entzunezko industriaren finantzaketako eta sorkuntzako eredu berriak’**; **‘sinkronizazioa eta aro digitalean izan duen bilakaera’**; **‘mezenasgo-moduen aldaketa Estatuan’**; **‘egile-eskubideen eta jabetza intelektualaren kudeaketak Europan gaur egin dituen erronkak’**; edo **‘musika latinoa aro digitalean, eta musika horren ondarea’**.

Nabarmentzekoak dira, halaber, **‘Espainiako Musika Federazioa eratzeko ekitaldia’** (sektoreko nazioko hainbat enpresak osatzen dute: diskoetxeek, sustatzaileek, aretoek eta industriako hainbat eragilek), sektorearen interes kolektiboak sustatzeko asmoz; edo hainbat panel: **‘Artea eta adierazpen-askatasuna: adiskide arriskutsuak?’**, edo **‘plataforma digitaletako kontsumo-metodoak’**; **‘musika-industria independentearen benetako erradiografia’**; **‘egile-eskubideen kudeaketa kolektiboaren erronka berriak’**; **‘musika-ekitaldietan segurtasun integrala zainduz’**; **‘kontzertu-areto txiki eta handien erronka berriak’**; **‘musika-proiektuetarako Europako finantzaketa lortzeko aukerak aztertzea’**; edo **‘major-en erronka artisten belaunaldi berriaren aurrean’**.

Egitaraua erabat osatzeko, mahai-inguru bat antolatu da **Mondo Sonorok 25 urte** gaiari buruz, eta hainbat **tailer praktiko, honako sektore hauei dagokienez: argazkigintza, bideo-jokoak** (Game Music Connect edo PlayStation izango dira protagonista nagusi, eta berrikuntza eta produktu garrantzitsuenak eskusiban aurkeztuko dituzte); **musika-ekoizpena**; edo plataforma berriei buruz, hala nola **‘Apple Music for Artists’**, **‘YouTube artistentzat’** edo **‘Facebook & Instagram sare sozialetako jardunbide egokiak’**.

70 gai baino gehiago, industriaren oinarriak lantzeko; esate baterako, **BIME PRO Campus** musikaren industriari buruzko prestakuntza-programa; **BIME PRO Start Up!** saioak berrikuntzarako eta ekintzaitzarako eskaintzen duen gunea, eta sorkuntza-industrietako startup-ak indartzeko funtsezkoak diren ekimenak: Startup Competition edo Startup Village; edo ekitaldi nagusia, Europako feria iberoamerikarren lehen feria (eta bakarra): **Atlantic Music Conferences Symposium (AMCS)**.

BIME PROk **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso du.

BIME TECH HORNITZAILEEN MERKATUAREN LEHEN EDIZIOA IZANGO DA

BIME PRO ekitaldiaren barruko beste berrikuntza bat hornitzaileen merkatuaren lehen edizioa da. BIME TECH haientzat sortu da, sektorean urteak daramaten pertsona horientzat guztientzat, baina baita sektorean sartu nahi dutenentzat ere. Hitzaldiak eta solasaldiak aditu onenekin, stand-ak eta erakusketak produktu teknologiko abangoardistenekin eta lana errazten duten berrikuntzekin, eta negozio-aukera ugari. BEC! aretoaren atarian izango da merkatua, eta tamaina guztietako ekitaldietarako konponbideak edo aukerak eskaintzen dituzten teknikariak, zerbitzu-enpresak eta profesionalak bilduko dira.

BEGIRA ZER ABANTAILA ESKAINTZEN DITUEN BIME EXPERIENCE EKIMENAK

Musika-programazioaz gain, aurten lehen aldiz BIME EXPERIENCE antolatu da, hau da, BIME ekitaldira joaten diren guztientzat hiriko hainbat jatetxe eta museotan deskontu sinestezinak eskaintzen dituen ekimena, hala nola **Arte Ederretako Museoan** edo **Athletic Club Museoan**, baita gune gastronomiko enblematikoetan ere: Basquery, Bascook eta Txocook. Abantaila horiek baliatzeko, jaialdiko eskumuturrekoa jantzita izan behar da eta ekimenarekin bat egin duten tokietara joatean erakutsi; halaber, BIME PRO ekimenaren webgune ofizialean informazio zehatzagoa egongo da.

Prentsako akreditazioak

Gogoan izan prentsako akreditazioak eskatzeko epea urriaren 10ean amaituko dela. BIME PRO eta/edo BIME LIVE ekitaldietarako akreditazioa hemen eska dezakezu:
<https://www.bime.net/pro/eu/prentsa>

Prentsako kit-a eskuratzea

BIME PRO ekitaldiarekin lotutako material grafikorik behar izanez gero, sar zaitez gure [prentsa-eremuan](#).